



ETXAHUN

Piarres Larzabal

Iturria: Literatur Emailuak [<http://www.susa-literatura.com/emailuak/emailu080b.htm>]

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalEtxahun.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ETXAHUN

(Sei gertaldiko ikusgailua – 1951)

ABISU

Ikusgailu hau agertaraziko duteneri.

1° EMAN AINTZIN:

- a) Jenderi eman xehetasun zonbait Etxahunez eta haren koblez.
- b) Jendea abisa ez dela ikusgailu hau haurrentzat.

2° GERTALDIEN ARTETAN:

Kanta ditazke Etxahunen kobla zonbait, ongi hautatuak, ikusi gertaldieri johan direnak.

Jokalariak:

ETXAHUN: 40 bat urthe, arteko gizon bat.

ENGRAZI: 45 bat urthe, Etxahunen emaztea.

SEME: 8 bat urthe, Etxahunen semea.

JOANES: 40 bat urthe, Etxahunen auzo eta adixkidea.

EGIAPHAL: 40 bat urthe, Etxahunen auzo eta etsaia.

ERRETORA: zahar, handi, ile luze, boz aphal idor batekin.

MAIDER: 25 bat urtheke neskatxa.

KATTALIN: 25 bat urtheke neskatxa.

AMA: 60 urtheke emazteki bat.



ALABA: 40 bat urthe, ama horren alaba.

PIERRA: 65 bat urteko artzain bat.

MARTXELIN: Pierraren andrea, 50 bat urthe, maingua.

PANPILI: Pierraren semea, 11 urthe.

GANIXON: 70 urheko gizon gogor, handi, aho xabal bat.

ATXOA (Maria): 70 bat urteko atxo pollit bat.

NEXKA ttipi bat atxoaren eskutik.

MUTHIKO BAT: 12 bat urtekoa, kofesionalearen aintzinean.

BERDIN BERTZE BATZU han berean.

PETTE: 30 bat urteko muthila.

MANE: 30 bat urteko muthil bat.

LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua:

Phente mutur hat, sahets bide batekin.

ETXAHUN: *(Sega mehatzen ari, bere burnarekin solasean)* «Landetako lurrek, girixtino maiteak, laphar tzarretarik garbitu behar duten bezala, halaber arimako hedadurek behar dute laphar tzarretarik, erran nahi baita bekatuetarik, noiztenka garbitu. Eta laster Phazko baita, orai da tenora jina, zuen arimen beren lapharretarrik garbitzeko... Phentsatzen dut herriko artzainaren oihua entzuna izanen dela, eta balitz arthaldean ardi errebelatu zonbait, hek ere Jainkoaren bordarat berritz itzuli nahiko dutela... Halabiz...»

Holaxet zen, igandean, gure jaun erretoraren predikua... Ardi errebelatuak... Hori hiretzat zian, Etxahun.

Bazakitek, bazakitek segurki herri guzian, presondegitik libratuz geroz, bi urthe hautan, ez dukala zangorik sarthu elizan. Hiauk ahantz baheza ere, Etxahun gaizoa, plaza Dendarieneko bi andere saindu hek han dituk hire konduen begiratzeko... Atso sorjesak! Ama alabak dira Dendarienean dendar... Aitarik nehork ez du ezagutu etxe hortan... Eta horiek, horiek behar naute ni, Etxahun, judikatu.

Han igaraiten diren emazte eta, neskatxa guziak, entrada bera dute entzuten: Aditu duzueia jaun erretoraren predikua? Aurt-hen hurbilduko othe da Etxahun sakramenduetarat? Ez den, ba lastima herriko ume bat hortaratzia... Phazkorik ere ez egiten...

Azkenik badakizueia nori hola ari izanak diren? Ondo huntako bi neska tzarrerri!... Hemen goraxago bada kartiera bat, Gaztelondoko kartiera... Herriko neska tzar eta basenak hor bizi dira... Eta, ala-jokoan, horko bi julufreietarik larrieneri ari izonak dira, Dendarieneko atso hek, ni konbertitzeko eta ni konbertitzeko.



Lehen ere eman diozkaket kobla gazi batzu, ba Dendarieneko ama alaba hoieri, ba Gaztelondoko neska tzar hoieri... Berritz ere entzunen dituzte.

Etxahun bekotorosa! Etxahun kriminela!... Etxahun preso egona!... Zer dute nitaz hola mintzatzeko? Zer kalte egin diotet nik?

Preso egon berri nizala bi urthez! Eta gero? Horrek erran nahi othe du baitezpada hobendun nintzela? Tribunalala xuxena izan balitz, eta lege-gizonak gizonak izan balire, egungo egunean ez nintzen izanen denen aho mihietan beltztua eta biguindua.

Nahi nuke jakin zer eginen zuen bertze edozoin gizonak, ene orde izan balitz.

Emaztearekin eta hurrekin bizi nintzen, lanean eta bakean.

Egun batez ohartu nintzen auzoko buzoka bot zabilala ene esposari hurbilduko. Ez bakarrik ohartu, bainan segurtatu gure ohatzeon urtxo amak bi gerizatzaile bazituela.

Ordutik, ene baitharik urrundu ziren loa eta goxoa. Odola errabian jarri zitzaitan. Ez nakien gehiago zer egiten nuen ere.

Eta arma kargaturik, bide hegian guardiatu nuen ene etsaia... Tiro bat eman nion... Zorigaitzez ez nuen hil... doi-doia kolpatu bakarrik. Horra nola ninduten preso altxatu eta bi urterentzat itzalean ezarri.

Eta Egiaphal, ene etsaia... horrek phitsik ez ukhan... Ene emazteak!... Horrek ere phitsik... Horiak orotaz garbi... Ni, Etxahun, gizon tzar bat, idurikor, jeloskor bat... Oro ene gain... Denek ene kontra... Lege gizonak... eta aphezak ere... Aphezak ere ez naute maite, phertsu gordin zombait emaiten dituztalakoan igandetan, ostatueta... Eman ditut eta emanen ere ba... Erran bezate nahi badute enetzat: Phertsulari jorrari... Jorrari, bainan errekolat bezala, jende zombait ere jorrateak ditu ontzen.

Eta orai, presondegitik libratu, berritz etxerat ethorria naiz... Eta ene emaztearekin bizi naiz ahal bezala... Ba, ahal bezala... Nihaurek dakit ene etxeko berri... Bi haur ere baditugu... seme alabak.

Eta Egiaphal, ene etsaia, bethi hor bizi... Hortxet, auzo hortan... eder eta bapho... Eta gehiago dena, Etxahun han preso zen den-

boran, Egiaphal Etxahunen etxean sar-jalika ibili... Zer sar-jalika!... Egiaphalek ene ogitik jan... eta... ene oheko goxotasunetik jostatu...

Horra emaztearen ahulezia!...

Horiak guziak badazki Etxahunek!

Etxahun. hunek badu hanitz iretsirik, hanitz!... Bainan iretsiak ez ditudala ahantziak jakin-azue...

Hortxet badaukat ophi bat, errabiaz kargatua, eta hurbiltzen ari da tenora, ophil hori hustu eta zapartatuko baita...

Kasu emak, Egiaphal!... Den azeririk abilenak azkenean zephoan erortzen dituk... Ez hadila ene alhorretan sar

*(Entzuten da ardi arthalde bat,
bere artzainarekin, bidean iragaiten).*

To, Pierra, etxerat ari phazkatik bere arthaldiarekin... Horrek ere phazkak behere hautan, eta bere etxea, Mendialdea, han nonbait, Jainkoak daki non, oren bat eta erdiren bidean... Soberaxko ardi ernarientzat halako kurriadak.

PIERRA: He be, Etxahun, larunbarekin sega mehatzen?

ETXAHUN: Ez ahal dut nehoi kalterik ekhartzen

PIERRA: Bezperan mehatu sega, biharamunean baituk maiz zerbitzaten.

ETXAHUN: Aphezak ditik denak barkhatzen.

PIERRA: *(Trijfan)* Barkhatzerat ekhartzen badiztegu ba!

ETXAHUN: Bakhotxak berez artha hor dezala, auzokoak auzokoen gain utziz.

PIERRA: Ez dik balio samurtzea, muthikoa, nik irriz erranez... Bakhotxa bere barneko harat-hunaten juje duk.

ETXAHUN: Hala behar litake segurik... Zertako nauzue ba hola kanpotik judikatzen?... Segur naiz, bihar, auzoko Egiaphal apostolu hori, han izanen dela lehenatarik mahain sainduan, bi eskuak hola, ausiki nahi balitu bezala, juntatuak! Hori, gizon prestu zuzentzat daukazue... Pentsa ba! Elizan dabilan... komuniatzen dabilan gizona!



PIERRA: Zer nahi duk? Jendeak itxuratik dik jujatzen... Gure Jainkoak zakik barneko berri!

ETXAHUN: Bon, Jainkoak badaki ene barneko berri... Eta ni, harekin ako-meatzen naiz... Eta jendeak utz nezala ni bakean!.. Badaki-zu... bakean!

PIERRA: Ez dik balio ez, bi hitzentzat, hola minberatzia!

ETXAHUN: Nor ez da minberatuko? Ez du oraino zortzi egun, gure erretorak katiximako haurrerri othoitz eginarazi diote, herriko bekotoros handi batentzat, aurthen phazkoak egin ditzan... Denek konprenitu dute enetzat zela.

Egun hautan, galtzen azpilzunean, zer othe nuen, zerbait gogor eta... badakizua zer zena? Medaila bat, hau, ni konbertitzeko ezarria! Eta badakizua nork? Emeki, emeki oro jakiten dira. Dendarieneko bi birjina izanek zuten delako medaila, berriaren egiteko izarriztat joan galtza zaharrear.

Bainan berak galdu dira. Zer egina zuten kondatu diote Gaztelondo hortako Mainer eta Kattalin, bi neska zantzailerri... Toki onean salatu dute ori, beren sekretua! Biharamuneko hor nintuen, trufaz, ez zela ez galtzetan medailarik ibiltzen, bainan papoan!

PIERRA: Muthikoa ! Bainan, Dendarieneko horiek hori egin baditek, hire onean egin ditek.

ETXAHUN: Preseski, sarri berean, norapait joan gogo dut, zortzi egunen mihi phazka emanen baitiotet Dendarieneko eta heien kideko guzieren.

PIERRA: Norat joan gogo duk?

ETXAHUN: Norat joan gogo? Kofesatzerat!

PIERRA: *(Irriz)* Ha, ha, ha... Ez diat sinhesten!

ETXAHUN: Zerentako ez? Ala... Ez joaitea gaizki egiten bainuen, orai berriz joaitea gaizki eginen duta?

PIERRA: Ez, ez, ez... Bainan, hi, hola jaun erretorari kontra ari izan-eta, hire kobletan, eta orai hari kofesatzerat!... Ez diat sinhesten!

ETXAHUN: Hari eta berari... Zuzen ahal da zordun denari zorraren pagatzea eta ez zure zorretan deus hartze ez duteneri.

PIERRA: Ez hiza beldur erretorak zer nahi erran burutik behera?

ETXAHUN: Entzunen ditu ordainak.

PIERRA: Bon... ontsa duk... Nik ere ardi hauk etxalde hurbildueta, jautsi gogo diat, ene eginbidearen bethetzerat.

ETXAHUN: Ba, elizak kokatuko gaitu, gu eta bertze hainbertze ere...

PIERRA: Karratxo! Ardiak barraiatzen hasi zaizkiat! *(Urruntzen da, artbaldeari oihuz eta bixtuz)*... Ez haiz sekulan gure etxalde hetarat agertzen.

ETXAHUN: Zertarat nahi duzu jitea ni Mendialderat?

PIERRA: Ethortzen bahaiz ihiziz edo bertzela, sar-jalitze bat egizak gero... Ni ez bada, emaztea bederen han izanen duk... Gaxura xorta bat bederen izanen diuk edateko.

ETXAHUN: Ontsa da...

(Bakarrik) Bihar, mar, mar, mar, herri guzian hedatuko duk berria Etxahunek phazkoak egin dituela... Artzain hori ere han bizi duk ba... han nonbait Mendialean.... Joanes, ene adixkide hoberena baitut, zer erranen othe du, jakitean phazkoak eginak ditudela... Gaztelondoko zonbait neska tzar batzuen ganik ere, ha, zer musika partidak behar ditudan entzun, jakinen dutelarik Etxahun kofesatzen izan dela!...

Zenbat orenak othe dira? Ixtantian diat ba naski elizako tenora... Ez duk errex izanen elizan sartze hura...

(Mainer eta Kattalin ixilik sartzen dira, eta kilikatzen dute gibeletik Etxahun, oihu bana eginez.)

ETXAHUN: *(Jauzi bat egiten du)* Hau izitzea! Deubru ahuntza basak! Norat ari zirezte hola?

MAIDER: Zure xekarat jinak gira!

ETXAHUN: Zertako nere xekarat?

MAIDER: Gurekin elizarat jiteko.

ETXAHUN: Ha, zer ditutzue? Aingeru begiraleak nahi bideko? Aski ditutzue ganden igande arratsean, hemendik. pasatzean zinituztenak berriz ere biltzia.... Ni zaharregi nun orai zuekin paseatzeko.



MAIDER: Ez zitugu batere hortako nahi... Behar duzu zuk ere gurekin jin zure bekhatuen xuritzerat.

ETXAHUN: Nik, ene kontzientzia xuri dinat.

MAIDER: Ba, bi urthe hautako zikinekin...

ETXAHUN: Zer dakin hik? Hi haizen julufreiarekin, ez dun ez hire bokata ere hanbatekoa.

MAIDER: Nik enea hilabethetik xuritzen dut.

ETXAHUN: Gaixo apheza, bide din lana zuen irina eiheran pasatzen.

MAIDER: Ez du ez, gure irina pasatzeko, zetabe larririk behar, zuretako behar lukeen bezala.

ETXAHUN: Erraiten diozkatzuteia bederen denak, aphez gaizo horri, enganatu gabe?... Ala ahuntx jakitik zerbitzatzan diozue, akerkia gorderik atxikiz?

MAIDER: Zuk emaiten diozun jakioaren gatik, norbaitek fornitu behar diol!

ETXAHUN: Ez dinat beldurrik, zuenak iretsiz geroz, aphez gaizoa oraino goserik egonen dela. Denak saltzen badiozkatzue ahatik!

MAIDER: (*Kattalini*) Hau, gutaz arras trufatzen dun, no! Hunek merezi din herresta aldi bat... Har zan zango hortarik.

(*Bi zangoetarik herrestatzen dute*)

ETXAHUN: Ai, ail!... Debru phika emeak!... Hu hemendik. Ale kuxe... Ai, ail...

(*Maidar eta Kattalin ihesi doatzi irri karkailaka*)

ETXAHUN: (*Xuñituri*) Debruentxuak... Galtzak ere abantxu galdu ditiat... Te... Ikhusten ditutzue Gaztelondoko neskak! Horra nolakoak diren... Horien deboziona, elizan, egun argiz hola (*eskuak kartsuki juntatzen ditu*)... eta gauaz, bide zoko hautan gaindi, hola (*gerritik hartzeko jestua eginez*)

Gure xaharrek zioten jinen zela mende bat gizonen arbolen puntarat beharko baitute igan, ezmateri eskapatzeko... Ez zakiat mende hura ez den hurbiltzen ari.

Horra nolakoak ditugun gure herriko perlak! Eta segur naiz ixtantean han izanen direla, Dendarienean, ez baitezpada Phazkoko arropa berrien izartzeko, bainan Etxahuneki zer pasotu duten kondatzeko...

(*Bere buruarekin irriz*) Medaila hau ahulxkoa ezarri zaitaie hemen... Beharko die azkarxago bat muntatu.

Pinpirina horiek nola kofesatzen othe dira gero!... Nola!... Ba, funtsean, Etxahun, badakika ihaurek ere kofesatzen?...

Aitaren eta Semearen eta izpiritu sainduaren izenean. Hala biz. Aita benedikata nazazu, zeren... zeren... Nola da ba hura? Hauxe da ba! Zer behar diot erran aphezari?

JOANES: (*Bidetik*) Eheup!

ETXAHUN: To, hi hiza, Joanes?

JOANES: Ba... Behiak edan artean, sega koskak entzun-eta, hire ganat jin nauk.

ETXAHUN: To... ontsa egin duk... Memento onean heldu haiz. Errak... gu, egundainotik adixkide gaituk. Bertze guziek mespretxatzen nindutelarik, hik bethi atxikimendua erakutsi dautak.

JOANES: (*Irriz*) Holako abiadurarekin, hik baduk zer bait bihotzeko min.

ETXAHUN: Ba, bahaiz... Erra, badakika kofesatzen?

JOANES: Jes! Hauxe galdea! Bixtan duk, badakitala.

ETXAHUN: Errak... Sarri kofesatzerat joan gogo diat... Behar nauk argitu; zer behar zioiat erran aphezari?

JOANES: Hi kofesatzerat!... To, errazkik hire bekhatuak!..

ETXAHUN: Ez zakiat ordian nola erran! Ez zakiat zoin burutarik has!

JOANES: Ba, ez dik balio burua haustea hortakotz... Errak aphezari: Jauna, ez dakit kofesatzen... Lagun nezazu othoi...

ETXAHUN: Bo, eta aphezak zer galdutuko zaitak?

JOANES: To, galdutuko dauk, lehenik ean othoitzak egin ditukan.

ETXAHUN: Zer erran behar zioiat?

JOANES: Ez dakika ihaurek egin ditukan ala ez?

ETXAHUN: Othoitzak, othoitzak... Zonbait «Agur Maria» eta hola erraiten ditiat ba... Ean hortaz kontent izanen den?...

JOANES: Errakok dena den... Gero galdutuko dauzkik hola: ean mezan ibili haizen.



ETXAHUN: Eta, ezetz erraiten bazioiat, eta ez naizela ibili gogo ere

JOANES: To, beharko diok, nahi baduk atsoluzioeoa bildu, hitzeman, oraitik igande guziz ibiliko haizela.

ETXAHUN: Deubrua! Kofesatzea duk errexenik... Ondotik heldu diren karguak, kofesatzea baino gehiago gasta behar zaizkiat.

JOANES: Emazte horiekin ibili haizen ere, beharko duk ba erran...

ETXAHUN: Hortan, ez diat arrangurarik... Ez nauk ni Egiaphal... Gazte-londoko neska tzar horiek harrotzen ditiat zombait aldiz... Bainan berek xekatzten nautelakotz... Errak, eta... behar diota aphezari erran tiro bat Egiaphali eman diotala?

JOANES: Bixtan duk.

ETXAHUN: Bainan hori bekatu dea? Hire ontasunen ebasterat, eta ez edozoin ontasun, hire emaztearen beraren ebasterat heldu den ohoin bati, tiro bat emaita...

JOANES: Bixtan duk... Hiltzea, hiltzea duk... Eta bekatu handia duk hori.

ETXAHUN: Eta, beraz, nahi badiat bekatu horren atsoluzioeoa, behar diat urrikitan sartu, eta, hemendik goiti, Egiaphal bere gisa utzi?...

JOANES: Ba, ez duk dudarik

ETXAHUN: Orduan, ez dik balio ni kofesatzerat joaita.

JOANES: Zertako ez?

ETXAHUN: Uste duka nik aphezari hitzemaiten ahal diotala, Egiaphal ikusten badut ene emaztearen ondotik —zeren bazakiat oraino ere badabilala— uste duka Egiaphal hola ikusten badut, bere gisa utziko dudala?

Muthikoa, lehen okasionearen beha niagok eta, Egiaphali jauzi egiteko, eta aztapar hautaz haren urkhatzeko... Hik ez hezakea gauzo bera egin, errak, ikusten bahu gizon bat hire emaztearekin?

JOANES: Hori ez zakiat... Ba... Bazukek ahatik... Bainan zer nahi duk... Urrikia behar dik kofesatzeko!... Hola ikasi diaguk, guk.

ETXAHUN: Urrikia, urrikia... Bainan, muthikoa, nork behar dik urrikia: Gaizkia egin duenak, ala gaizkia jasan duenak?

JOANES: Gaizkia egin duenak, bixtan duk!

ETXAHUN: Orduan, nik ez diat urrikitan sortzerik egin dudana... Egiaphal dik egin gaizkia... Eta nik, harek egin gaizkia jasan diat... Harek behar dik hortaz urrukia, eta ez nik!

JOANES: Ba, harek ez dik ez ontsa egin... Hik ere, haren hiltzea... To, ez zakiat ba... Badakik, ni ez nauk gero apheza... Aski diozkak horiek aphezari erraita... Harek argituko hau nik baino hobeki.

ETXAHUN: Nagok Egiaphal nola kofesatzen ahal den.

JOANES: Zertako hori?

ETXAHUN: Muthikoa, kofesatuz geroz, behar likek ene emazteari ukho egin... Ez dik ordean egiten

JOANES: Segur hiza oraino ondotik dabilala?

ETXAHUN: Segur nizan?... Segur baino segurago... Mila azerikeria ibiltzen ditik, ni urruntzen naizelarik, harekin gurutzatzeko... Bainan kasu eman dezala!... Kasu eman dezala!... Azkenean, noizbait bada noizbait, pilota ethortzen duk punparat.

JOANES: Hire zorthea pleini diat.

ETXAHUN: Ba, iduri dik Etxahun gain indar batez maradikatua ethorri zela mundu huntarat... Sorthu nintzan pondutik, ene aitak halako hastiro bat hartu zian enetzat... Ez omen nian aitaren eiterik... Ez zuian ba ene falta ez baninduan aitaren semea.

Ezkondurinduan gogoaren kontra, ni baino zaharragoarekin... nik maite nuena, gaixoa, penaz eta penarekin utzi nian... Ez zuian etxeko alaba, eta etxeko alaba batekin behar omen nian baitezpada ezkondu... Hala zioian aitak... Bertzelan despremutzen ninduela...

Eta orai hor nauk... Ene lagunak, ene orde, bertze norbait zian maite... Bertze norbait hura: Egiaphal... Eta orai, Egiaphal hor diaguk bien arte... Ohartu-eta nor sahetserat bildu nuen, egin ahalak egin ditiat, behin goxoki, haren konbertitzeko, gero bortizki, haren hezteko... Bainan, deus ere ez diat bururatu... Badakik segida... nola Egiaphalen hiltzerat entseatu ninduan... Horra ene zorthea... Eta naski, ez duk hartan geldi izanen... Nihauerek zakiat ene gogoaren



berri... Eta zer trantziak pasatzen ditudan ere ba, batzuetan...

Ha, Egiaphal, Egiaphal!

JOANES: To, to... Batzuetan ez duk hi baino gizon jostagin eta arrollantagorik, eta bertze batzueton berriz, ikarratzen nauk... Hain zauk odola gainditzen

Baniak... Baniak... Behiak ere han harasko urrunduak ditiat.. Sarri artino, to... Elizarot jiten bahaiz, han gurutzatuko gaituk...

(Urruntzen da behier manatuş).

ETXAHUN: Ba, sarri artino...

Ha, Joanes, ene adixkidea... Ez duk kartierean hau baino gizon zuzenagorik eta finagorik... Bere emaztea eta haurrak ere bere idurirat ditik... Gure etxean ez duk holakorik...

Horren etxea eta enia itxuraz berdin... Bainan, gurean amodioa eta konfientzia larre joanak... Gure etxean, ohoinak elgarrekin bezala bizi... hots, gordeka, ebatska.

SEME: *(Etxahunen seme tipia, oihuş, agertu gabe)* Aita!

ETXAHUN: Zer da, seme!

SEME: Amaren partez, kofesatzerat joan nahi baduzu, tenora dela...

ETXAHUN: Don... Errakok baietz... Heldu nizala

Ha, huna beraz tenora! Xorrotx zaitzue zuen mihiak, barkoxtar emazteak! Laster izanen duzue berri handi bat kondatzeko: Etxahunek phazkoak egin dituela.

Ha, kofesio horri!.. Lehen ere guti ibiltzalea, aspaldian batere ez... Eginen diaguk ahal dena...

Ahatik, aphezak ez dezala gero eni jali hala ez denik, edo ezin jasan dezaketanik.

Fedea badiat, nor nahik bezainbat... Hanitz hor maiz elizan dabiltzanek duten baino gehiago... Ez bainuke nik horiek duten kopeta: Maiz saildu iduri, Jainkoa adoratzen elizan —eta handik kanporat ordu, debruaren lauzkan.

Guti badira ere hire elizarako urhatsak, hek, Etxahun, ibil azkik serioski... Saskitara bat fruitu Jainkoari eskaintzea ez dik

balio, denak ustelak badira... Hobe dik bakhar bat eskaintzea, bainan hura ona izan dadiela...

Goazen beztitzerat!..

OIHALA



BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Eliza baten sartzeko athea, barneko aldetik. Sahetsean, kofesionale bat, kadera zonbait aintzinean.

ERRETORA: *(Kofesatzeko jauntziez beztitua, barat eta hunat dabila, ofiziotako liburuan othoitzak marmarikatu... Sei orenek jaiten dute elizan. Jaun erretora badoba elizako atbearen gakoari, idekitzeko itzulia emaiterat).*

—Orai sar ditela... beren tenorean... Ez hor ez, lau orenetako, zoin lehenka!... Iduri eta erretor botek tenore guziak libro dituela... *(Belhaunikatzen da aldarean buruz).* — «Ha, Jainko maittea, lagun nezazu lan dorphe huntan!» *(Sartzan da kofesionalerat).*

(Sartzan dira elizarat, bakotxa bere moldean zainatu, belhaunikatu eta kofesionale aintzinean kokatu, lehenik gizon zahar gohor bat, gero hamabi urteko muthiko basaka bat, gero atxo xabar bat nekka bat eskutik, bertze zonbait ere nahibada; azkenik, Gaztelondoko Maider eta Kattalin. Denak serioseki bulta bat badagotzi, kontzientzia etsaminatzen, bat arrosarioekin, bertzea liburutik eta... hola...).

ATXOA: *(Hurbiltzen zaiio gizon zahar gohorari)* Kofesatua zirea, Ganixon?

GANIXON: Zer?

ATXOA: Pasatua zirea?

GANIXON: Pasatua zait ba... Milesker... Ahatik zortzi egun ohean egon-eta!

(Denak irriz kurkurkur)

ATXOA: Ez, ez... Ean, kofesatua zaren

GANIXON: Ha... kofesorro? Ez dakit barne hortan baden nehor... Ethorriko da ba, dudarik gabe... Tenora dul...

ERRETORA: *(Barnetik, xutiturik)* Ixilik hor!... Kofesatzen ahal zarezte... Sar zaite, Maria!.. *(Atxoa sartzan da).*

GANIXON: Ha!.. Hor zen-eta!

(Hamabi urteko muthikoa, erne ernea dago, atxo xabarra jali ordu, kofesionalerat sartzeko. Hura atbera ordu, bixt sartzan da... Bainan gizon zaharra ohartzan zaiio, eta lephotik lotzen, oro inharrosten dituztela).

—Hep! Nere saindia duk gero... haugi hunarat... Deubru kakatsu tzarra!

(Denak irriz kurkurkur)

ERRETORA: *(Kexu)* Agozte ixilik!... Hi, muthikoa, ikasak saindiaren beha egoiten...

(Gohorra kofesatzean, oro beharriak tapaka, erdi irrika dagotzi, kofesionaletik ahal bezenbat urrunduz. Kaderen arrabotsez eta eztulka entsatzen dira gohoraren solasen tapatzerat. Halere gohoraren hitz hank aditzen dira).

GANIXON: Bai, bai, predikua han horat joana... Ja, ja; gazte denboran bai, ez orai... Ba, bizpalau zama edo hola... Zenbat hamarreko? Hamahiru?

ETXAHUN: *(Elizan sartzan da, eta kofesionale aintzini plantatzen, Gaztelondoko bi neskeri burbil. Hant, hartaz, elgarri keinuka lotzen dira. Ixtant baten buruan, Etxahun ohartzan zaiote, eta Maideri erraiten dio ahapetik)* Seigarren hortan etsamia hadi gero ontsa



MAIDER: (*Abapetik*) Zu ere zer zira? Zenbat tiroen salatzerat ethorria (*Bi neskak irriz abapetik*).

ERRETORA: (*Furian jalitzen zaiote*) Zoazte kanporat hemendik... Ala zer zarezte? Jainkoaz trufatzerat jinak hunarat! (*Maidar eta Kattalin jalitzen dira*).

(*Etxahuni*) Eta hik ere, kanpoko zozokeriak utziko dituk kanpokotz, eta gizonki gobernaturko haiz hemen haizen denboran bederen.

ETXAHUN: (*Jazartzen zaiio*) Ez naiz ni non nahi gizonki gobernaturko? Zer duzu nitez erraiteko?

ERRETORA: Xehetasunak nahi badituk, haugi ene etxerat.. Hemen ixilik... elizan baigituk!

(*Ordu berean sartzen da Joanes*).

ETXAHUN: (*Badoba kanporat, koleran*) Ez zure etxerat, ez hunarat ez naiz gehiego jinen!

JOANES: (*Etxahuni*) Ala, muthikoa!... Zer ari haiz?

ETXAHUN: (*Athea hetsiz*) Erranak erran, orai aski... Ez naitek berritz hemen ikusirik... Ni kofesatu nahi naueno, jin bedi enegatur. (*Denak ixilik dagotzi... Kofesioak aitzinarat... Gohorra xutitzen da eta, kanporat dobala, Joanesi mintzatzen*)

GANIXON: Zer zian Etxahunek, te, hola jalitzeko?

JOANES: Deubrua dantzan!.. Deubrua dantzan!..

GANIXON: Jainkooren etxean ere deubrua dantzan?!... Ez gaituk goral!...

(*Jalitzen da... Ixtant bat...*)

HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Eskualdun sukalde bat... Etxahunen etxean. Arratsa da, Etxahun kofesaturat joana. Etxahunen haurak ohean diara Egiaphal sukaldean dago Etxahunen emazte Engraziren ganat jinu... Edateko zerbait Engrazik zerbitzatzen diola.

ENGRAZI: Ea, gizona kofesaturat joana dut... Bihar Phazko baita... Haurrak ere ohean ditut.

EGIAPHAL: Ikusia nuen joaiten, igandeko arropaz beztitua. Hortakoz, denboraz baliatuz, jin naiz zure ikusterat... Errazu, Engrazi, errazu garbiki, zuk baduzu zerbait ene kontra.

ENGRAZI: Nik?.. Ez... Zertako?

EGIAPHAL: Ba, ba... Ez du balio ukhatzea!.. Atzo oraino azkenekotz... Etxara pasatu plazarat joaiteko, gure phentze handiaren aldetik... Ni han nintzen, usaiako tenorean... Nahi nautzun zerbait aipatu... Bainan, zuk bertze bidea hartu duzu

ENGRAZI: Ba, ixtilen gatik

EGIAPHAL: Ez eni holakorik erran, Engrazi... Lehen ere baziren ixtilok gure phentze handiaren sahetsean... Orduan pasatzen zinen zu handik... Errazu, Engrazi... Jakiterat jina naiz... Zerbaitetan huts egin deutzuta? Badakizu zombat zaitudan maite!.. Errazu garbiki zer duzun hola hoztua izaiteko nerekin!

ENGRAZI: (*Ezin atrebituz*) Ba... badut zerbait... Ez baitakit konprenituko nauzun.

EGIAPHAL: Zer duzu?.. Errazu garbiki dena den.

ENGRAZI: Zure kontra phitsik ez dut... Bainan, badakizu, gogoeta batzu egiten dira... Haurrak ere hor, eta phazkoak ere heldu... Senharra ere aurthen elizarat hurbiltzen phazkoen egiteko...

EGIAPHAL: Eta gero, zer?..



ENGRAZI: Ori... nik ere behar dutala hobetu... seriostu.

EGIAPHAL:... Bon... (*Minberaki*) Hori nuen beraz merexi zure ganik... (*Bortizki*) Badakizu zer hitz ibili ditugun... Badakizu nola elgarrekin ezkontzeko hitz-hortuak, zure aitak ez zuela nahi eta, zure hitza ez zinuen atxiki... Geroztik, gure amodiak segitu du... Libro izanen grelarik, elgarretaratuko ginela, hainbertzetan juramentu egin dugu elgarri. (*Erdi nigarrez*) Ha, Engrazi, ez dautazu holakorik eginen... Ez... Hitzemana dugu, ez nauzula abandonatuko.

ENGRAZI: (*Erdi nigarrez*)... Zoazi hemendik... Othoi, zoazi!

EGIAPHAL: Hitz-eman dautazu... Bertzenaz, ez zaitela estona ikasten baduzu, hemendik jali-eta, Egiaphalek bere burua urerat aurthiki duela... Badakizu zonbat maite zitudan, Engrazi!

ENGRAZI: Ez... Zaude zure tokian... Ez nezazula hunki... Ha, zakurral... Zakurra saingaz... Norbait bada (*Behatzen du leihotik*)... Haaa... Senharra... Senharra heldu... Zoazi, zoazi hemendik... Ez kanpoko atletik... Ikusiko zaitu... Xahu gira... Hemendik... Sor zaite haurren ganbararat... Emeki... Leioha idek azu, emeki... Zoazi leihotik, haurrak atzarri gabe...

(Engrazi bera gelditzen da sukaldean eta entseatzan da berriaz bere buruaz jabetzerat.)

ETXAHUN: (*Sartzen da kopeta ilhun, elbeak labur*). Jainkook gab'on!..

ENGRAZI: Bai zuri ere!.. Jes!.. Zoin laster egin duzun itzulial..

ETXAHUN: Bertz'aldiz lasterrago eginen dut... Batere ez baitut gehiago eginen...

ENGRAZI: Zer erran nahi duzu?... Zer gertatu zaitzu?

ETXAHUN: ... Phitsik ez... Phitsik... (*Orroaz koleran*) Aski badut... Konprenitzen duzu, aski badut jendeak nitaz dituen solasez... Etxahun ezdeusa, Etxahun mandila... Etxahunek ez du nehor egundaino saldu... nehoi ez du phitsik ebatsi... Etxahunek ez du faltarik afera hortan... Jainkoaren gizonak, aphezak bederen dagotzila ixilik... «Orai ere zu, Etxahun!... » «Orai ere»... Hori zen, erretorak eni emaiteko

solasa?... Denok, bethi eta bethi gero, Etxahunen gain... (*Eztitzen da*).

Ekazu othoi zerbait edateko... (*Obartzan da Egiaphalek utzirikako botoila eta basoari*)... Norbait izan duzu hemen?

ENGRAZI: Norbait?... Ez... Nihor.

ETXAHUN: Hum... Eta baso eta botoila hau?

ENGRAZI: Hu... Ni nintzon egarritua...

ETXAHUN: Zuk ez duzu arnorik edaten!

ENGRAZI: Ba, ori... Hola gertatu da... Ez bainien bertzerik eskupean... Zaude... emaiten dautzut baso garbi bat.

(Basoa kentzen du bertze garbi batez ordaintzeko)

ETXAHUN: Zuk ibilia bada, uzten ahal duzu ba baso berra har... (*Ixilik, duda tzar batez hartua, emazteari begi ezkinex behatuz, Etxahunek bere burua zerbizatzan du eta edaten... Leibo arrabots bat entzuten da haurren ganbaratik, eta Etxahunen seme tipia, oibuz ikarretan, agertzen da ganbarako atletik.*)

SEME: Aita!... Ama!... Norbaitek jauzi egin du gure ganbarako leihotik... Ba, gizon bat... gizon bat zen...

ENGRAZI: Ago ixilik, muthikoa... Amets egin duk!... Hougi hunarat, oherat...

SEME: (*Nigarrez*) Ez dut ez amets egin... Ikusi dut ba... Egiaphal bezalako gizon bat zen... Ikusi dut ba...

(Ama semearekin ganbararat sartzen da.

Etxahun badoba kanporat behatzerat, lebenik sukaldeko leihotik, gero atletik...

Hitzik erran gabe, keXu izigarri batean jartzen da.

Emaztea berriaz agertzean, bortizki jazartzen zaio).

ETXAHUN: Nor zen, leihotik ihesi joan den gizon hori... He! nor zen?

ENGRAZI: Nik zer dakit?



ETXAHUN: Egiaphal zen hori... Zuek biak, ni han kofesatzerat joan-eta, hemen elgarreki egon zarezte... Bethi aintzinat bizi zira, ni tronpatuz!...

ENGRAZI: Ez da egia.

ETXAHUN: Zer ez dela egia? Norentzat zinituen beraz jaliak baso eta botoila hau! (*Botoila eskuan harturik, badoba emazteari buruz, hortaz jo nahi balu bezala.*) Norentzat?... Errazu egia!

(Engrazi, oihu batean, kaderarat erortzen da erdi flakatua).

ETXAHUN: (*Bera*) Ha, hi, Etxahun, nongo zorte madarikatuaz joa bizi haiz ba munduan? (*Botoila pautsatzen du*)... Ez dut ba izigarrikeriarik galdatzen... Bakarrik bakean eta lanean bizitzea ene familian!... Eta horra ene biziko laguna... Horra zertan dudan. Ez nau bakarrik sartzen, bainan ene etxean berean, ene gauzez du ene etsaia hazten!

(Kadera bat han harat pusakoan botatzen du... Jartzen da eta nigarrez hasten. Berritx xutiturik, hurbiltzen zaio emazteari. Hau bere baitaratua da).

Bainan, nik zer egin dautzut zuri, zuk ni hola saltzeko?... Ezkondu bagira ezkondu, bethi zuri leial egon naiz... Ez dituguia hor gure haurrak!.. Orhoit zaite elgarrekin pasatu oren goxoz... Zertan huts egin dautzut? Zer arregura duzu nitaz

(Engrazi hasperenka, batere arraposturik eman gabe).

Guk, urus behar ginuke, urus biek, gure familia eta ontasunekin... Phitsiren eskasirik ez dugu, phitsiren... Xuxen ibiltzea, hura dautzut bakarrik galdatzen... Bertze guziak izanik ere, gaizki ibiltzen bazira, denek eskas izanen ditutzu, denek... Ba zuk, eta ba zorigaitzez nik ere zurekin... Eta baten hutsak denek pekatzen baitituzte familian...

(Engrazi, bethi hasperenka)

Bainan berriz ere, zer arregura duzu eni egiteko?... Zer? Mintza zait!... Errazu zerbait!... Zertako, egun azkenik, tronpatu nazu harekin?... Egun azkenik!...

ENGRAZI: (*Ahaptetik*) Ez da egia... Ez zaitut tronpatu

ETXAHUN: Ez tronpatu... Hum, zer kopeta!... Ez tronpatu... Hitzortuak zinezten aintzinetik... Bazinakiten noiz elgarretara... Ba, eta noiz?... Etxahun kofesatzerat joan den denboran... Ez dik deubruak gaizki irri egiten... Ha, konprenitzen dut orai zertako nahi ninduzun kofesatzerat igorri!... Zertako zinen urus ni kofesatzerat joateaz... Orai, denek argi dira ene izpirituan!... Ez ene arimaz urrikalduz, bainan ni zure sahetsetik urrundu beharrez!... Zer barnea!...

ENGRAZI: Ez da egia!...

ETXAHUN: (*Kolera botz batekin*) Bon..., bainan afera hunek aski iraun du... Hunek behar du noizbait bururatu... Azken aldia ez nuen erreusitu, bainan oraikoa ez dut huts eginen... aski seguretetik aphailatuko bainaiz... (*Kartuxiera gerrian ezartzen du*)... Aski seguretetik eta behar den tokian. (*Harma hartzen du*) Azkenean jin duk hire eguna, Etxahun... Ahantzterat bezala abiatua hintzen egin zaukana... Ahantz, barka... egitate ederrak, bainan ahulak... Nere ahuleziaz baliatu haiz, Egiaphal... Bainan orai, fini, fini... Mendekio eta gaztiguaren tenora jina duk.

ENGRAZI: (*Hari buruz joanez*) ...Othoi, harma hori... harma hori... Orhoit zaite zure haurrez!

ETXAHUN: (*Emaztea baztertuz*) Ene haurrez!... Zuri da horren eni erraita... Zuri!... Ene haurreri aita bat nahi diotet eman, eta ez biga.

JOANES: (*Sartzen da bien oihuen erdian*) Jes!... Zer duzue holako oihuetan! Norat abian haiz, hi, hire harma horekin?

ETXAHUN: Aski jasan ahal diot... Tenora jina duk ihizi nausituen ihizirat joateko... Etxahunek erakutsi gogo dik gizon baten biziak ez duela axolarik, bere ohorean hunkitzen dutelarik,

JOANES: Jaun erretorari hiza jazarri gogo?... Bainan muthikoa, baduka burutik?

ENGRAZI: Ho, Joanes, ez zazula utz jalitzerat.



ETXAHUN: Gizonek ez badute egin nahi xuxentasunik enetzat, nihaurek eginen diat heien orde.

JOANES: Bainan, muthikoa, jaun erretora ez zauk hain gaizki mintzatu...
Ihaure haiz asoldatu...

ETXAHUN: Gab'on. (*Jalitzen da.*)

ENGRAZI: (*Joanesi*) Ha, Joanes... Zoazi ondolik... krima bat egitera dohal!...

JOANES: Bainan zer arrazoin eman du hola erretorari jazartzeko?

ENGRAZI: Erretora!... Erretora l... Ez dakit nik... Ez du ez harentzat deus... Egiaphalen hiltzerat abian da.

JOANES: Egiaphalen hiltzerat?

ENGRAZI: Ba... Jin delarik elizatik, Egiaphal hemen kausitu du... eta, Egiaphal, ganbarako leihotik ihesi joana da...

JOANES: Bon... Orai konprenitzen dut... Hori bertzerik da!... Aise zen holako errobian!... Orai konprenitzen dut.

ENGRAZI: Othoi zoazi laster ondolik!

JOANES: (*Uzkur*) Errex da erraitea... Errex da ori hor, gauarekin ibiltzea gizon harmatu baten ondolik... Bonoha, bainan... (*Atheratzen da.*)

ENGRAZI: (*Bakarrik, ixtant bat gogoetatua, xutik dago. Bet-betan hipaka nigarrere lotzen da eta jaartzzen.*)

— Ha, horiek guziak ene gatik!... Ez da presondegian nihor preso, nola bainaz ni ene ahulezien erdian!... Ha, noiz othe naiz ba horietarik libratuko!

OIHALA

LAUGARREN GERTALDIA

Joka-Lekua:

Oihan zoko bat: arbola eta arroka, bidexka batekin... Gau ilhargi da... Pette, muthil gaztea, bidexkan agertzen da... Huntza baten oihua entzunik, bide bazterean konkortzen da... Berritz, bietan huntzak oihu egiten du, eta orduan sasipetik Mane, bertze muthil gaztea, irriz ateratzen zaio Petteri.

MANE: Ha, ha, ha... izitu haizela ahatik!...

PETTE: Ah!... Hi hintzena.. Jakiterat... Behar huen, to, harrika aldi bat hartu...

MANE: Sekulan deusek ez hauela gauaz izitzen, espantuka ari izan baihaiz atzo, nahi nikan frogatu ean egia othe huen edo ez!

PETTE: Ba, egia erran, ez nauk izi errex... Bainan oxtian, hunarakuan, zerbait entzun diat, eta beldur bat sartu zaitok bihotzean.

MANE: Zer entzun duk?

PETTE: Tiro bat entzun diat... Eta, gero halako intzirin batzu.

MANE: (*Irriz*) Ba, errana duk, amodiotan dabilanari sorginak pueska ibiltzen zaizkola ondolik.

PETTE: Ba, ez nauk gero irriz ari... Hor, zerbait gertatu duk...

MANE: Emak bakio, muthikoa... Eta, haugi Gaztelondorat... Hango leihoetan ahantziko dituk oro!

PETTE: Ez zakiat, hor zer gertatu den... Hortxet zian dena... Egiaphaleneko landa buruan... Hor norbait!

MANE: Ba, berdin norbait, basurderi edo azkoneri tiroka... Zer nahi duk izan dadien bertzerik gauaz?

PETTE: Ba... Eta intzirin hek?

MANE: Hek, hek!... Bon, utz-aitzik horiek burutik bere gisa... Ilhargi ederra diaguk... Denbora goxoa... Afa!.. Biba libertatea eta amodioa... Goazen, Gaztelondoko maiteen harrotzerat...

PETTE: Pxt... Pxt...

MANE: (*Aphal*) Zer duk?...



PETTE: Norbait baduk hor... So egizak... Gizon baten bultua duk.

MANE: (*Aphal*) Gorde gaiten... Ez gaitzan ezagut... Goazen hemendik...
Haugi hunat.... (*Biak gordetzen dira*).

ETXAHUN: (*Agertzen da bakarrik, harma erdi berrestan, itxura arrunt desegina...
Ixil-ixila, lehenik jartzen da harroka baten gainean, eta gero, hipa-
ka nigarrez lotzen*).

— Hil dut. Hil dut... Gizon bat hil dut... Eta nor?... Ez Egiaphal,
ez.... Ez ene etsaia.... Bainan Joanes.... Joanes ene adixkide
hoberena...

(*Orroaz, iduri adimendua galdua*). Hil dut, hil!

OIHARTZUNA: (*Menditik errepostu*) Hil... Hill...

ETXAHUN: (*Xutitzen da barritua*) Nok nau akusatzen?

OIHARTZUNA: Akusatzen!

ETXAHUN: Ez dut nahitarat hil!

OIHARTZUNA: Hil!

ETXAHUN: Ez nuen nahi Joanes hil!

OIHARTZUNA: Hil!

ETXAHUN: Ez naiz kriminel!

OIHARTZUNA: Kriminela

ETXAHUN: (*Nigarrez berrituz jartzen da, eta bere buruarekin, intzirin eta solas,
luzaz mintzatzen*) Zorte malurusa!... Joanes ene adixkidea...
Hura behar nian beraz hil... Joanes ene haurreko laguna...
Egundainotik ez baitaut ongirik baizik egin... Bertze
guziek, etxekoek, kanpokoek, aphezek berek, beltzen,
zikintzen, zangopetan ezartzen ninditekan denboran, hi,
Joanes hi bakarrik, bethi ene alde agertu haiz... Ba etxean,
ba bidean, ba ostatuan... Zenbat aldiz ez haiz ethorri nere
kontsolatzerat, preso nintzanean! Adixkide bat, bat, bat
bakarrik nuen munduan, eta hura dut hil... Ha, hurbildu
naizelarik et ezagutu dudalarik nor nuen lurrerat aurthiki...
Ha ikusi ditudalarik haren bi begiak eni luzaz luzaz itzul-
tzen azken aldikotz... Ha, barka zadak... (*Xutitzen da, eta
begiak galduak mintzo da*) Ez, ez naiteke gehiago bizi... Joa-
nes hil dut... Hil nadielo ni ere... Ha hunekin berarekin...
Kartutxak... Azken kartutxa bat... Nun zarezte ene kartu-
txak?

ERRETORA: (*Bet-betan agertzen da*) Etxahun!...

ETXAHUN: (*Izigarriki barritua, harma erortzerat bezala uzten du, oibu bat egi-
nez*).

ERRETORA: (*Lotzen zaiio besotik*) Zer ari haiz hola, Etxahun?... Zer egin
duk to? Harma eskutik kentzen dio).

ETXAHUN: (*Nigarrez*) Joanes, jauna, Joanes hil dut!

ERRETORA: Bazakiat... Laster jendea ohartu duk eta deithu naitek.. Bai-
nan, berantegi...

ETXAHUN: Ez da ene falta... Ez nuen hura hil nahi... Bainan Egiaphal.

ERRETORA: Joanes edo Egiaphal... gizona gizon duk!...

ETXAHUN: Hala da... Bainan Egiaphal hil banu... hura hil banu bederen.
Ez bainuen zakur batentzat baino gehiago nigar eginen...

ERRETORA: Ago ixilik... Ez duk bakotxari xuxentasunaren egitea... Legez-
ko gizonak hor dituk hortakotz eta Jainkoa denendako.

ETXAHUN: (*Erreboltan*) Legezko gizonak!.. Ha, aipha-ozu eni heien
xuxentasuna! Zuk ez dakizu ene etxeko berri... Zu! Aise
mintzo zira sahetsetik!

ERRETORA: Mintza-hadi ahalago... Orhoit-hadi hobendun haizela...
Orai zer egin gogo duk?...

ETXAHUN: Ez dakit... Ez dakit gehiago, ez nor noizen, ez zer egin, ez zer
pentsa!

ERRETORA: Jandarmak hor dituk gibeletik... Ixtantean hemen izanen
dituk...

ETXAHUN: (*Ikharan*) Jandarmak!... Ez dut nahi hetarat erori... Lehenago
ene burua garbituko dut... Ekazu harma... Ekazu harma
hori...

ERRETORA: Utzak harma hori eni... Norat ari hintzen hemen gaindi?

ETXAHUN: Ez dakit nihaurek ere... Espaka... Espaka norapait mendi alde.

ERRETORA: Pentsatu diat hemen hintukela, nunbait, arimez eta gorphutzez
galdua... Eta, baleki bale, hortakotz jina ninduan hunarat.

ETXAHUN: Eta, orai, nik zer egin behar dut?...

ERRETORA: Hire egitatea, egitate larria duk... Bainan, kondenamendu
handienetik salbu hintazkela iduritzen zaitak. Ez baituk
nahitarat hil Joanes.



ETXAHUN: Ez duzuia zerbait egiten ahal ene alde? Ez duzuia jueri esplikatzeko ahal bederen?...

ERRETORA: Kasu egizak, Etxahun, zer erranen dukan... Gaua duk orai... Bihar goizean, herriko buruzagiekin aiphatuko diat hire harathunata... Gorde-hadi, bihar artino. Eta, zer salos ibili dugun hitaz, jinen nauk bihar erraiterat.

ETXAHUN: Gorde?... Bainan nun?

ERRETORA: Habil Mendialderat... Aski urrun izanen haiz hola... Mendialdeko artzainak izanen dik hire doia lasto bere bordan... Aski diok phitsik ez salatzea... Berria ez duk berdin berehala hedatuko haraino.

ETXAHUN: Harat jinen zirea?

ERRETORA: Ba... Ago han ene beha... Eta, orai urrun-hadi... Tenora duk...

ETXAHUN: (*Eskua tinkatuz jaun erretorari*) Milesker, milesker, jaun Erretora... (*Urruntzen da*).

ERRETORA: (*Harmari behatuz*) Ha mundu hau!... Mundu trixte hau!... (*Harma sasi-pean sartzen du eta urruntzen da*)... Emazteak ahal handia du ongiarentzat, bainan ere gaizkiarentzat... Zenbat krima gizonek ez dituzte egiten emazteen-gatik!

OIHAL

BORTZGARREN GERTALDIA

Joka-Lekua:

Dendarianeko josteko barne bat

AMA: (*Bera mintzo*) Zer izigarrikerria gertatu den ahatik gau huntan! Pazko gaua, orhoitzekoa izanen da zenbeitentzat... (*Leibotik, behatzen du*). Eta alaba ez ageri! Nun othe dabila?... Ixtantean, jendea mezzatik, jaliko da, eta segur naiz, xehetaxunetarat denak hunarat jinen dira, Dendarianerat... Ez baitut maite hala holaka artzea... Hobe baita gauzak gertatu diren bezala, xuxen kondatzea... Ha... horra, horra alaba heldu.

(*Alaba sartzen da*).

Eta... Zer ihasi dun hor gaindi?

ALABA: Ha ama... Zer nahi ihasi dut... Gertakari bat ditaken nahasien omen da... Hainitz salsa izanen omen da hor.

AMA: Zer ba?...

ALABA: Batzuek diote Egiaphalek hil duela Joanes... Pette eta Mane ere saltsan omen dira... Etxahun jaun andreak ere ba.

AMA: Bo Etxahun!... Sobera adixkide zitunan no Etxahun eta Joanes... Segur naun Egiaphalek duela Joanes hil...

ALABA: Ez dakit... Bainan, Egiaphal, jandarmek, berekin, joan ondoan, libratu omen dute...

AMA: Berdin din, berdin... Hura dun hor hobenduna Egiaphal zikin hori omen zabilan bethi Etxahunen emaztearen ondolik... Eta segur nun, Joanesek salatzen zizkonan Etxahuni denak... Etxahunek Joanes zinan bere emaztearen zaintzale... Hor-taz ohartu dun Egiaphal, eta hartaka din hil Joanes.

ALABA: To... So egizu leihotik... Jandarmak, Etxahunen emaztearekin pasatzen... Eta xuxen-xuxena, jende guzia elizatik jaltzen ari delarik... Hoa! Zer ahalgea!



AMA: Zerendako ahalgea?... Ez badu pitsik egin!

ALABA: To, Gaztelondoko Maider eta Kattalin ere hor dira.... Egin behar diotet oihu... Kartieretik hurbil baita krima gertatu, zerbeit bide dakite... (*Leiboa idekirik, keinuz deitzen ditu...*)

ALABA: Heldu dira... Behar diotet athea ideki... (*Sartzen dira*)

AMA: He ben.... Arropa berri horriek nola dituzue? Izan duzuel «ximiko berri» hainitz...

MAIDER: Arras pollitak ditugula erran daukute.

AMA: Hobe, hobe... eta errazue, zer diozue gertakari hortaz?... Hori.... Egiaphalen lana.... Urde gaxtoa.... Haren egitatea ditake hori bakarrik!

MAIDER: Non ez den Etxahunena?...

AMA: Hum, nekez.... Etxahun, mihi gaixtoko gizona duzu, nahi bezenbat... Edana delarik bereziki, kobletan-eta, zer-nahi erranen dautzu.... Guk ikusten dugu hemen nola ibiltzen den plaza huntan. Bainan, ez da barne tzarreko gizona... Egiaphal hura ba, bere kopeta ilhunarekin... Ha, harek bat izitzen nau.

MAIDER: Ba, ez dakit... Etxahunek, lehen ere eman izan du gero tiro bat.

AMA: Bainan Joanes zertako nahi duzu hil zezan?... Bere adixkide hobere-na!

MAIDER: Nik dakita?... Bainan, ni bethitik mesfidatzen naiz Etxahunez... Horrek ez du barne sano pausatu hetarik... Bethi halako errabia, kaldo batean bizi den gizona da...

AMA: Eta zuek, gain hortan, ez duzueia phits arrabotsik entzun gau huntan?

MAIDER: (*Keinu eginez, bere abizpari*)... Ez, ez... Phitsik... ederkixko lo egin dugu...

(*Athea jotzen dute*)

AMA: Aintzinat! (*Sartzen dira Pette eta Mane*).

AMA: Jes! Non zabiltzate hemen gaindi?

PETTE: (*Bi abizpari*)... Errazue, huna laburzki!... Jandarmek nunbeitik jakindu dute gau huntan krima-tokia gaindi pasatu garela,

eta beretarat deithua gira... Zuen atzemaierat heldu gira, han agertu baino lehen. Emazue gero egia dena den... Guk ere hala erranen dugu... Ez dugu gero saltsa hortan barne nahi... Zonbat orenak ziren, gu zuen leihoetarat jitean?...

MAIDER: (*Gorrituz*) Hamar, hamekok.

PETTE: Eta zonbatak, gu handik urruntzean?

MAIDER: Bi hiruenak...

PETTE: Bon.... Hitz hortan, agozte gero zuek ere... Guk dena den erranen baitugu... Gu bagoazi... Zuek ere izanen duzue segur, ondotik, galdea...

(*Jalitzen dira: Denak, jenatuak ixtant bat egonik, bi abizpak, jalitzen dira...*)

MAIDER: Bagoatzi gu ere.

AMA: (*Ezpain mehez*) Ontsa da, ontsa da... Zoazte beroz! (*Jalitzen dira*).

AMA: Ikusten duna horien kopeta?... Ontsasko lo egina zutela gauaz... Uste ninan ahatik seriosago zirela... Eta goizean, segur nun... komuniatzen zitunela...

ALABA: Ba, kofesatu dira ba, dudarik gabe...

AMA: Bo, bainan, berritz hasteko, prest ordian!...

Arrazoina din Etxahunek, batzueton edan-eta, jiten baita guri koblen egiterat; Jainko-jaleek ditzen maiz erlisionea galtzen...

ALABA: Utz-azu Jainkoaren gain, horien jujatzea (*Leibotik behatuz*). To, jaun erretora, kanpagnarat joaiteko makila ferratuarekin... Norat ari da hola?.. Tenore huntan?

AMA: Nun dun?

ALABA: Ori, ixtantean athetik pasatuko da...

AMA: Ago ixtant bat... Behar zakoniagu zerbeit estakuru pentsatu hunarat sar-arazteko... Beharbada, zerbeit bazakin...

(*Leibotik*) Jaun Erretora, othoi sar zaite, ixtant ixtano bat... Badut zuri zerbait presatu galdatzeko...

ERRETORA: (*Sartzen da*) Zer nahi zinuen!



AMA: Hemen badut, eliza aldare nausiko oihal bat, laburtzerat andere serorak ekharria... Nola zinueke nahi? Aldare gaineko oski dena bakarrik, edo bi bazterretarat erortzen dena?...

(Erakusten dio oihala).

Eta zer zaitzu gertakari izigarri hortaz, jaun Erretora... Zer barneko jendeak badiren ahatik bazterretan!... Nor othe da kriminela?...

Ori, hau behar duta pikatu edo hau?

Batzuek, Etxahun dela diote. Nik ez uste, jaun Erretora.

ERRETORA: Utziko ditutzue sei erhi trebes dilingo, aldare sahets bakoxtetarik. Hola ontsa izanen da...

AMA: Bon untsa da... Eta zuk, jaun Erretora, zer pentsatzen duzu?

ERRETORA: Phitsik, phitsik pentsatzen... Egun Phazko dela, eta denbora goxoa dugula. Bon, oihal hori erran bezala, eta sarri artino, andreak...

(Jalitzzen da)

AMA: Hauxe da ba apeza... Eta phitsik ez erran nahi!... Etxahunek hil othe du ba? Egiaphal!.. Eta Etxahunen emazte hori holakoa dela nork erranen du? Holakoeri su, su behar laiteke eman... Zer? Zuzen-kontrako gizonekin dabilan emaztea?... Zer da holako emaztea?

ALABA: Errazu, errazu, ama.... Hola mintzatu aintzin, orhoit zaite ba....

AMA: Ago ixilik hi! Nik bazakinot ene berri. Ni haur tzar bat nindunan, enganatu nindutelarik... Bazakinat, Etxahunek ez nain ni maite, maiz ene kontra ari dun; bainan, Egiaphal baino gehiago estimatzen dinat halere... Egiaphal, azpiz artzen dun lan tzarrear... Etxahun bederen ageri dun non den eta zer derasan.

ALABA: To, krida... *(Leiboa idekitzen du... Kanpuan tanburra jo eta kridatzen dute).*

HERRIKO MUTHILA: Abisu Barkoxeko jende guziari... Nork edo nork balinbadaki nun den Topet, Etxahuneko nagusia, haren

berri lehenbailehen helaraz dezala jandarmeriarat... Norbaitek gizon hori gordetzen badu, edo ikusi-eta non den, ez badu salatzen, garrakzi gaztigatua izanen da, gizon hori kriminelizat ekharria baita.

AMA: Hooo... Horra beraz... Horra kriminela... Arrazoina zuten Gaztelondoko neska horiek... Sekulan, sekulon ez nuen erranen Etxahun holakoa zela... Sekulan...

(Athea jotzen dute. Sartzen da Maria, kofesioko atxo xabar bura)

AMA: Te, hor zirea, Maria?... Sar zaite, sar, gaixoa. Zu ere berriketarat heldu... Ez zira lehena... Jakindu duzu nor den kriminela?

ATXOA: Bo, orai entzun dut herriko muthilaren ganik... Zuk ere ba dudarik gabe?

AMA: Ba, guk hemen goizetik zerbeit baginakien... Horra, ikusten duzu, horra gizon bat zertarotzen den errabian eta jeloskerian bizi delarik?... Bethi mesfidatzen nintzen, Etxahunek azkenean holako zerbait eginen zuela. Eta zuk zer diozu hortaz?...

ATXOA: Ho. *(Eztiki)* Ho, ene adinean badut holako frango entzunik. Krima batzu badire agertzen direnak, eta hainitz arrabots egiten dutenak. Bertze batzu, hainitzetan gehiago, badire nehork aiphatzen ez dituenak. Hortako; holakoak entzutean, ixil-ixila egoiten naiz, Jainko maiteari galdatuz, orotaz urrikal dadien...

AMA: Arrazoina duzu ba, Maria!

OIHALA



SEIGARREN GERTALDIA

Joka-Lekua:

Eskualdun sukalde bat... Mendialdian, artzainaren etxean.

MARTXELIN: Aita zer ari duk?

PANPILI: Aratxeari titia ezin har-arazi dio.

MARTXELIN: Ho, behi tzar horrek ere, zuzen goiz huntan umatu behar zian... Egun Phazko eta Mendialdetik nihor ez elizan... Ni ere zango mainku hunekin ez nintake orgetan bertzerik jauts...

Gure gizon horrek, behia hor zuela... Eta hi berritz, hi ere, hemen gu bezala.

PIERRA: (*Sartuz, untzi bat eskuan*) Ba, muthikoa bederen igortzen ahal zinuen ba egun beheiti.

MARTXELIN: Ori, zer nahi duzu?.. Zure falta ere bada... Gizonek bethi emazteki bat ondotik behar duzue zuen lanarentzat... «Martxelin, ekazu ur epela... Martxelin, ekazu gatza aratxeari gainetik emaiteko»... Eta zure mila ixtorioekin, muthikoa ohean ahantzi dut... Eta hori ere ez bera ernatu...

PIERRA: Egun Phazko, eta gure etxetik nehor ez elizan. Joan den ortzegunear ere, gure Panpilik katixima huts egin duela, ean non zen, atzo jaun Erretorak galdatua daut, kofesatzean.

MARTXELIN: Ikusten duk Panpili! Katixima ez hekiela eta ez duk joan nahi ukan... Ez bahaiz hobeki jarraikitzen, geldituko haiz komunionea egin gabe... Ikusiko duk.

PANPILI: Bo, erranen diot eri nintzela...

MARTXELIN: Halere, estakurua baitatik pentsatzen. (*Leihoa jotzen dute*)

Jes! nor da leiho hortan?

(*Idekitzen du... Agertzen da Etxahun boza xehatu batekin*).

ETXAHUN: Agur, Martxelin.

MARTXELIN: Etxahun! Zu, tenore huntan? Zerk zerabilta?... Gizona, zato barnerat!

ETXAHUN: Ez... Pierra hor dea?

MARTXELIN: Ba!... Zer nahi zinion?

ETXAHUN: Errozu, othoi, kanporaino jin dadien...

MARTXELIN: Bon, aski duzu beraz atheratzea (*Pierra jalitzen da*).

MARTXELIN: Zer zian kara meleka hori, gizon horrek?... Errak, Panpili, habil laster-lastera gaineko ganberarat eta guardia-aitzik ikusteko zer alderdi hartzen duten...

(*Panpili jalitzen da*)

Ez naiz orhoit gizon hori behin ere hemen ikusirik... Non dabila hori hemen? Ihizian beharbada... Ez duk ba ihiziko sasoino ere...

PANPILI: (*Gaineko ganberako zilotik*) Ama!

MARTXELIN: Zer da?

PANPILI: Behien selaururat sartu dira...

MARTXELIN: Bon, bon.. utz-aitzik... Haugi sukaldelat... Bo, beharbada zerbait beren arteko behi tratu, edo, belharra erosi behar edo... Handia da gure gizonak ez baitaut deus aiphatu...

(*Panpili berriaz agertzen da*)

MARTXELIN: Ez duk aditu zertaz ari ziren?

PANPILI: Ez... Aho apalez ari ziren... Etxahunek iduri zuen arrunt penatua.

(*Pierra sartzen da*)

MARTXELIN: Zer nahi zuen gizon horrek?

PIERRA: ...Lastoa galdatu daut, ixtant bat etzanik egoteko... Akitua, leher-tua omen da.

MARTXELIN: Nundik heldu da?



PIERRA: Berdin gauazko trafikuz zerbait!.. Nork daki, oraiko egunean, non dabilan lehen auzoa bera...

MARTXELIN: Ori, gure behi umatu horrekin, dena «muu» eta «muu» baita, ez du begi haundirik hetsiko.

PIERRA: Berak ikusiko du... Nik galdegina eman diot.

MARTXELIN: Jes! Tenore huntan... Eta, ez dautzu deus xehetasunik eman?

PIERRA: Ez, deus haundirik ez... Norbait beharbada ethorriko dela horen galdez.. Ez izitzeko..

MARTXELIN: Ez izitzeko? Jes!... Zer ditu, jandarmak ondotik?

PIERRA: Nik dakita?

(Zakurra saingaz)

MARTXELIN: Ean, Panpili, nor duen zakur horrek, to?

PANPILI: *(Behatzen du eta laster sartzen da)* ...Ama, jaun erretora, jaun erretora...

MARTXELIN: *(Burna galtzen du)* Ha, jaun erretora, tenore huntan! Nik sukaldea oraino garbitzekoa, eta desordre huntan! *(Pierrari)* Mugi zaite, zu ere, hortik norapait! *(Pierra jaltzen da)*.

(Ordre puska bat emaiten du).

Segur nauk hire gatik heldu dela... To, to... Hor zak katixima... Emon-hadi supazter xoko hortan... Galdatzen badauk zertako ez hintzen katiximan ortzegunean, errok zangoan min huela...

PANPILI: Zangoan min?

MARTXELIN: Hor nunbait... To esteka zak zangoa oihal hunekin...

(Athea jotzen dute)

MARTXELIN: Ha, eta jada hemen! *(Idekitzen du)*

Jesus!... Jaun erretora!... Zu hemen! Egun hunekin eta tenore huntan!...

ERRETORA: Ba beharrentzat ez da tenorerik...

MARTXELIN: Goiz huntako solasa ginuen, nehor ez ginela zorigaitzez elizarat joaiten ahal... Ni maingu... Mutiko hori zangotik minez, hor dago lau egun hotan, supazter xokoan. Gizona berritz ezin jali, xuxen-xuxena, behi bat umatu baitzauku goiz huntan.

ERRETORA: Muthiko hunek beraz zangoan min?

MARTXELIN: Ba, ba, hor dago, lau egun huntan sukaldetik oherat ohetik sukaldetatik... Errana diot goiz huntan... Katiximarat ez baihaiz joaiten ahal, etxean bederen ikasak... Eta, holaxet hasia zen katiximan.

ERRETORA: Ontsa duk. Ikasak ontsa katixima... Badakik zer debeketzen duen zortzigarren manamenduak?

PANPILI: Ba, jaun erretora. Zortzigarren manamenduak debeketzen dauku gezurren erraitea.

ERRETORA: Ontsa erran duk... Lehenago zaharrek ziotean: Gezurra, zango laburra... Erran nahi baita, gezurra fite harrapatua... Fite harrapatua, zangoa oihalez estalirik ere... Nun da Pierra?

MARTXELIN: Hor behien tegian.

ERRETORA: Ikusi behar dut.

MARTXELIN: Ekar-arazten dut.

ERRETORA: Ez, ez, konpoko atletik sartuko naiz... Han berean elgar ikusiko dugu.

(Atheratzen da)

MARTXELIN: Zer erran nahi zian, to, bere gezur eta zango laburrekin?

PANPILI: Zuk erran diozu lau egun hautan zangotik minez ez naizelo hemendik mugitu... eta, atzo, berak ikusia nau pilotan, plazarat komisionetarat joan-et<.

MARTXELIN: Ha debrukeria!... *(koleran)* Zertako ez dautak erran, zozo buru handia? To, orai pollita behar diat horen aintzinean!.. Oraiko haurrek bururik ez dute. Zuen aita-amen errabiarazteko bertzerik ez zarezte!



(Sartzen dire Erretora, Etxahun eta Pierra)

ERRETORA: Bon, hemen behar badugu solasean ari, hobe dugu hiru gizonek bakarrik egoitea.

PIERRA: *(Emazte eta semeari).* Zoazte zuek ixtant bat hemendik...

MARTXELIN: Atheratzeko?... Ha, bon, bon... segidan... Haugi Panpili!

(Martxelin eta Panpili jalitzen dira)

ERRETORA: *(Panpili)* Maingu bahaiz, maingu egitea ez zakela ahantz!

MARTXELIN: Ha, jauna, holako min bitxi bat du... Aldizka egiten du maingu eta aldizka berriz phitsik ez du... Belhaunak dio huts egiten.

ERRETORA: Belhauncan, badu min, bertze aldikotz minaren esteka hori emanen diozu belhauncan, eta ez zango beherean...

(Biak jalitzen dira... eta hiruk gelditzen)

ERRETORA: Bon, mintza gaiten elhe gutiz eta ontsa... *(Etxahuni)* Mintzatu nauk hitaz herriko eta jandarmen buruzagiekin. Hire egitatea larria duk; bainan, tribunalak, balikek hitaz pietate, ikusiz zer kasuton hil dukan Joanes... Hire hobena oraino ttipiango lukek, ihaur joaiten bahitz jaun xapeldun horietorrat, gertatuaren pena erakutsiz.

ETXAHUN: *(Erdi nigarrez)* Ha, ene zortea! Berritz, preso joan behar duta! *(Errabian)* Hooo! Egiaphal! Horiek guziak hire gatik dituk. Hi haiz hobendun handiena!

ERRETORA: Orhoit hadi, Joanesen familia aitarik gabe ezarri dukala.

ETXAHUN: *(Erdi nigarrez)* Ha, Joanes! Joanes! ene adixkide bakarra!... Oxtian botu bat egina dut... Sekulan presondegitik hortakotz on libratzen banaute, egin dutan krimaren erreparatzeko, Erromako itzulua oinez eta eske eginen dutala.

ERRETORA: Ez duk ideia txarra... Jainkoak lagunduko ahal hau botu horren bururatzen... Bon, orai ni hirekin kito nauk... Egin zak iduritzen zukana... Preso sartzen bahaiz, ethorriko

nauk harat, gorputzez eta arimez pixka bat hire soleitzerat... Agur to...

ETXAHUN: *(Humkitua, nigarrez, jaun erretoraren eskueri musu ematen diote)* Agur, agur, jaun erretora...

(Erretorak Pierrari keinu egiten dio athera dadien borekin)

ETXAHUN: *(Bera)* Beraz, Etxahun, berritz ere preso behar duk itzuli... Hi, han izanen haiz, krixketa handiez hetsia... Eta, jendeak hitaz mintzatuko dituk... Hitaz, mintzatuko dituk, ba oraiko jendeak, eta bai gerokoak... Hitaz, denek gauza bera erranen ditek, ba kazetetan, ba ostatueta, ba supazter xokoetan. Erranen ditek: Etxahun kriminela, Etxahun gizon hiltzalea... *(Orroaz)* Etxahun kriminela! Solaz hori errazue nahi duzuen bezenbat, ba oraiko, ba geroko gizonek: Etxahun kriminela!... Hitz hortaz ase zaitze, ase zintzurreraino, ithoaraino...

Bainan. Etxahun hau trufatzen da zuetaz, erran et erranen dituzuen guziez... Etxahun hunek badaki bere berri: Ez da Etxahun kontzientzia errekarat aurtikia duen gizon ez deus bat... Etxahunek barkamendu gehiago emaitako du galdatzeko baino.

(Eskuaz jalitzeko athea idekitzen duela) Mundu huntako jujeak, zuen ganat heldu naiz...

Egin aitzue zuen konduak enekin... nik eneak eginak ditut enekin eta *(aphalago)* gaineko Juje handiarekin.

BURURATZEA